



Gandolfo, Teixeira eta Sotto militar-ingeniariek 1636an egin zuten Pasaia badiaren planoak.

# Gotzain irlandar bat Errenterian, 1657an Nicholas French-en meza ematea<sup>1</sup>

IAGO IRIXOA CORTÉS

Pasaia badiak itxuraldatze sakona ezagutu du mendeen poderioz. Lohitze prozesu naturalek zein Donostiak utzikieriaz bideratutako garbiketa eta mantentze politikak, aurreko gizaldietan bere itxura gaur egungoaren hagitz ezberdina zela gutxitan datorkigu burura; baina garai haietako plano eta marrazkiak ikusi besterik ez dugu horretaz jabetzeko. Itsasoak zein urek askoz esparru zabalagoa zuten, beraien eragina Errenteria hiri-bilduaren harresietaraino iristen zen. Modu ho-

netan, egun badiaren gibelean eta uretatik urruti dakusagun populazio gune horrek, itsasoarekin lotura estua zuen.

Harreman horren ondorioz, gure arbasoak hamaika lekutan barreiatuta ikusten ditugun bezala, kanpotarrak guregana iritsi ziren. Agidanez ez zuten kolonia sendorik osatu, Europako hainbat lekutan ez bezala, baina ia etengabeko ttanttak izan ziren, baita Gipuzkoako agintariek bertako gizartea *aitonsemea* eta *odolgarbikoa* zela esan

<sup>1</sup> Eskerrak egin nahi dizkiogu Mikel Prietori, artikulua berrikustean egindako iradokizunengatik.

eta hori mantentzeko ekimenak areagotu zituzten garaietan ere. Atzerritarren iritsiera hau garaian garaikoa izan zen; hau da, gure artean egoteko arrazoiak ez ziren beti berdinak izan. Egia da askotan merkataritza jarduerak egiteko iritsitako pertsonak zirela, baina Historian zehar dinamika politiko eta ekonomiko ezberdinak jazo dira eta horrek ere eragina izan zuen; zer esanik ez hamai-ka gerratetan sartutako Aro Berriko European.

Halaber, egonaldi guztiak ez ziren modu berekoak. Kanpotik iritsitakoen artean anitz Pasaia badiak nazioarteko mailan zuen garrantziaz baliatu ziren, dela beraien merkataritza negozioak bideratzeko, dela plataforma gisa beste toki batzuetara joateko. Beste batzuk, ordea, gurean ezarri, ezkondu, seme-alabak izan eta hil egin ziren; alegia, bertakotu egin ziren.

Dokumentazioan arrastoa utzi duten atzerritar komunitate horietako bat irlandarra da, berriki David Zapirainekin jorratu duguna, modu laburrean bada ere<sup>2</sup>. Irlandak eta euskal kostaldeak harreman estua zuten Erdi Arotik: gureak hara *sardin-zaharra* eta legatza arrantzatzeraz joaten ziren eta halaber Irlandako merkatal sareetan sartu ziren, besteak beste, Bristol eta Gipuzkoako ekialdearen arteko harremana profitatuz.

Irlandarren adibidea, ordea, nahiko berezia da eta egoera latz batean txertatu behar dugu; are gehiago, merkataritza baino, XVII. mende erdialdean beraiek hona etortzeko arrazoiak politiko-militarrak izan ziren, Ingalaterrak burutu zuen irlaren konkistarekin zerikusi zuzena zuten. Irlandarrek Aro Berri edo Modernoan bizitako migrazio prozesuak azken urteotako ikerkuntza ugariaren jomuga izan dira<sup>3</sup>. Gipuzkoako eta, bereziki, Pasaia badiako kasua,

ordea, nahiko ezkutatuta dago, nahiz eta dokumentazioa jorratzen hasiz gero, mamia duen gaia izan.

Mikrohistorikoki apenas ezagutzen dugun baina informazio bolumen izugarria duen XVII. mendeko Gipuzkoan, gizaldi horretako erdialdeko eliz agiriak hamaika bikote irlandarrek beraien haurrak badiako elizetan bataiatu zituztela adierazten digute; Donostian, Hondarribian edo kostaldeko beste hainbat hiribildutan baino kopuru altuagoan gainera. Ohar horien arabera, gure badiako komunitateak esparru berezia izan ziren; ezin bestela izan, armadak itsasoratu edo lehorreratzeko puntu lehenetsia baitziren. Era berean, baditugu irlandarrak gurean ezkondu zirela frogatzen duten agiriak; ez bakarrik beraien artean, baita bertakoekin egin zutela ere.

## 1. Irlanda eta Europako testuinguru belikoa

Irlandarren presentziaz jabetzeko, hainbat iturri har ditzakegu. Aipatutako eliz erregistroez gain, notario-protokoloak eta Batzar Nagusietako aktak, adibidez. Azken hauek oso adierazgarriak dira, nahiz eta 1601-1631 arteko erregistroetan beraien inguruan aipamen gutxi ditugun. Hau harrigarria gerta daiteke, XVII. mende hasierak irlandarren immigrazio sasoi bati hasiera ematen baitio<sup>4</sup>. Lehenengo aipamen azpimarragarriak 1631ko maiatzean ditugu; orduan Uzmoneko kondea Probintzian dugu, 400 soldadu irlandarreko konpainia bat osatu nahian<sup>5</sup>; 1638ko uztailean, berriz, frantsesen erasoaldiari kontra egiteko irlandarrak A Coruñatik etorri ziren eta Donostian 1.300ek ostatu hartu zuten<sup>6</sup>. Ordutik, datuak pixkanaka ugaritzen joanen dira.

Etorritako gehienak soldaduak izaki, halakoek askotan egin zituzten gehiegikeriak eta testuinguru

2 Ikus iazko urrian Ferrolen ospatu zen jardunaldira aurkeztu genuen eta argitaratzeko bidean dagoen IRIXOA CORTÉS, I.; eta ZAPIRAIN KARRIKA, D.: “¿Una inmigración católica a mediados del XVII? El caso de los irlandeses en la bahía de Pasaia (Gipuzkoa)”. In: GARCÍA HURTADO, M-R.; eta REY CASTELAO, O. (arg.): *Fronteras de agua. Las ciudades portuarias y su universo cultural*. Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela (prentsan). Bereziki, elizbarrutiko erregistroak, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoko (AHPG-GPAH) dokumentazioa eta Errenteriako Udal Aktak ardatz hartuta.

3 Ald., besteak beste, <http://www.irishineurope.com/front>. Bizkaiko kasurako, ald. BILBAO, A.: *Los irlandeses de Bizkaia. Los chiguiris. Siglo XVIII*. Bilbo: BBK, 2004.

4 Ald. LYONS, M. A.: *Franco-Irish relations, 1500-1610: Politics, Migration and Trade*. Suffolk: Royal Historical Society, 2003, bereziki 167 or. eta hh.

5 AYERBE IRIBAR, M.<sup>ª</sup> R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1629-1631. Documentos)*. Donostia: GFA-GBB, 2006, 346-347 eta 403 or. Onartu behar dugu gaiaren inguruan prestatu genuen artikuluan, helburua eta izaera dela eta, dokumentazio hau gutxi erabili genuela. Edonola ere, eta oraingo lerroek azterketa sakon batetik urrun badaude ere, beraien balioa agerian jartzeko balioko dutelakoan gaude.

6 Azken datu honetarako, ald. AYERBE IRIBAR, M.<sup>ª</sup> R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1638-1640. Documentos)*. Donostia: GFA-GBB, 2007, 129 eta 788 or. A Coruñakorako, ibidem, 183 or. Orain esango ditugun datuetarako, ibidem, 160, 480, 481, 651, 660, 661 eta 664-666 or.

belikoak sortutako behar eta eskasiek, Probintzia saiatu zen halako kontingentea hemen ahalik eta denbora gutxien egoten. Honelako asmoak 1639ko irailean agerian daude eta 1640. urtearen erdialdetik aurrera ugaritu ziren, bereziki Nafarroan apopilo zegoen irlandarrez osatutako tertzioa Probintziara zetorrela jakinik. Azken urte horretako uztailean honakoa adierazten zen: “no ay en ella [Gipuzkoan] cosecha de vino, y de no dárseles a medida de su deseo se an experimentado en el tiempo qu’estubieron en el distrito d’esta Provincia y en la rretirada de los irlandeses muchas demasías y ezesos en los quarteles y en las muertes y robos que hizieron”. Agidanez, aurreko egonaldietan hainbat arazo eragin zituzten, eta horiek saihesteko neurriak hartu nahi ziren; egiari zor, oraingoan ez dirudi liskar handirik jazo zenik, abuztu eta azaro artean ez baitago horren berririk. Egoera lasai honen arazoak bi izan zitezkeen: batetik, tertzioaren tamaina txikia (*son de moderado número*); bestetik, soldaduak Probintzian zehar barreiatu izana<sup>7</sup>. Edonola ere, egonaldien aurkako adierazpenek beren horretan jarraitu zuten denbora batez<sup>8</sup>.

Handik hamar urtera berriak askoz nabarmenagoak dira. Ez gara horietan sartuko, baina aipamen txiki bat egitea merezi duela deritzogu, tropen sakabanaketa horren nondik norakoak agerikoak baitira. Lehengo berriak 1652ko amaieran ditugu. Irail hasieran, Gaztelatik Pasaiara bidean zihoazen mila irlandar Azkoitira ailegatu zirelako berri ematen zen<sup>9</sup>. Handik hilabete gutxira, mugimendu hau bi aldetakoa zela ikus dezakegu; hau da, irlandarrak bai barnealdetik, bai kostaldetik iristen ari ziren.

Ildo honetatik oso adierazgarriak dira Donostiak 1653ko urtarrilaren 6an esandakoak: “Al puerto del Passaxe han llegado tres mil infantes hirlandeses, y entre ellos mil cavalleros, a los quales es forçosso aloxarlos en tierra, y que los otros dos mil estén en las embarcaciones en el interin benga la resolución

de Su Magestad”. Hasiera batean Pasai San Pedro, Pasai Donibane, Lezo eta Erreterian leku eman nahi zitzairen, Donostiako kuartelak 1.400 gizonez baino gehiagoz beteta baitzeuden. Baina hamabost urte lehenago frantses inbasioak sortutako kalteak larriak ziren badiako herrietan; horrez gain, ordurako Pasaiako bi komunitateek itsas armadako soldaduak eta beste hainbat irlandar hartuta zituzten. Hasierako erabakia Bordalaborda etxean eta Kordeldegian leku egitea izan zen, eta dokumentazioari esker hala izan zela ikus dezakegu. Bestalde, beste 280 irlandar Oiartzunen hainbat egun eman zituzten, nahiz eta bailarak Irungo bidea har zezatela eskatu, eragiten zituzten kalteak direla eta<sup>10</sup>.

Kontua ez zen hor amaitu. 1653ko maiatzean Hondarribitik atera ziren 300 soldadu irlandar Erreterian (60), Oiartzun (100), Irun (100) eta Lezora (40) lekualdatzeko asmoa agertu zen; horrez gain, ordurako Erreterian, Lezon eta Donostiako hareatzetan zeudenak Probintzian sakabanatu zituzten, baina ez hiribildu eta herri handietara; aitzitik, Larraul (20), Astigarraga (50), Zizurkil (50), Asteasu (80) eta Usurbil (100) izan ziren hautatutako lekuak. Donostian 200 inguru geratu ziren. Plangintza hori maiatzean bertan adostu zen: helburua Gipuzkoa barnealdean baina Pasaiatik gertu egotea zen, *donde se avían de embarcar en breve*; modu honetan, Erreterian eta Lezon zeuden irlandarrak Frantziara desertatu zezatela ekidin nahi zen, Irundik alde egin zuten 250ekin gertatu ez bezala.

Baina sortzen zituzten arazoak, desertzioen edota herriek Probintziari helarazitako protesten ondorioz, sakabanaketa plangintza areagotu egin zen. 1653ko abenduan 70 irlandar Amezketara eta Abaltzisketara; Asteasu eta Larraulen dauden 100 irlandarrak Goiatz, Errezil eta Bidanira; Aduna eta Sorabillako 70ak Zarautz eta Getariara; eta Zizurkilgo 50ak Oriora lekualdatzeko asmoa agertu zen<sup>11</sup>.


7 Tolosan eta Hernanin egoteko asmoa zutela ere badakigu, Nafarroako Priore Nagusiak, uztailearen 19an honako hiribilduetan kuartelatzeko agindua eman zuen: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Azpeitia, Azkoitia, Bergara, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Eskoriatza, Mutriku, Oñati, Soraluze eta Zestoan.

8 1642ko azaroan, adibidez, 500 soldaduz osatutako gudaroste irlandarra iristekotan zela. Ildo honetatik, konpainia ugarik Donostian lur hartzen zuten; azaroa erdialdean 500 alemaniar egoteaz gain, irlandar gehiago iristea espero zen. Ikus AYERBE IRIBAR, M.<sup>ª</sup> R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1641-1643. Documentos)*. Donostia: GFA-GBB, 2008, 240 eta 314 or.

9 Ikus ibidem, 216, 241 or.

10 Ald. ibidem, 273 (hau bereziki), 274, 276, 278 eta 288 or. Kordeldegia eta Bordalabordarako, ikus IRIXOA CORTÉS, I.; eta ZAPIRAIN KARRIKA, D., aip. lan.

11 AYERBE IRIBAR, M.<sup>ª</sup> R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1641-1643. Documentos)*, aip. lan., 343-347 eta 459-460 or. Ildo honetatik, interesgarria litzateke irlandarren arrastoa aipatutako herriei dagokien dokumentazioan begiratzea. Asteasuko kontu-liburuek, adibidez, horren inguruko berriak ematen dizkigute, bertako artxibozain Amagoia Piák aitortu digun moduan.



French-en iritsiera jasotzen duen A/1/18 udal akta liburuaren babes orria.

Edonola ere, irlandarren egonaldien inguruko berriek indarrean diraute 1654. urtean eta, hein txikiagoan bada ere, 1655 eta 1656an. Pro-bintziak irlandarrak hartzeko eta mantentzeko izandako gastuen erreklamazioa egiten zirauen. Egoera hain zen larria ezen herriek, zor zitzaiena jaso ezean, irlandar gehiago ez hartzeko asmoa agertu zutela<sup>12</sup>.

## 2. Nicholas French, egoeraren adierazle eredugarria

Irlandarren ailegaera eta hau gertatu zen unea ez dira zorizkoak. Irlak Erresuma Batuko gobernua- ren aldetik bizi zuen errepresio eta egoeraz gain, Espainiako Koroaren barneko eta kanpoko testuin- guru belikoa begien bistakoa zen. Horren barnean

1655-1660 bitartean *guda anglo-hispaniarra* deritzona dugu. Bi koroen arteko merkataritza poli- tiken ildotik sortutako gatazka zen, Cromwell-ek berak bultzatutakoa, eta bere heriotzarekin (1658) baretzen joan zen, harik eta 1660an, Ingalaterrako tronuan berrezarria izan zen Carlos II.ak, etsaiaren aurkako jazarpenak geratzea ebatzi arte. Ondorioz, katolikotasunaren bermatzaile ziren Irlanda eta monarkia hispanikoaren arteko harremanak bultza zitzakeen testuingurua da. XVI. mende amaieratik, Gaztelako Koroa buru zuen armadan irlandarren paperak gora egin zuen, eta XVII. gizaldiaren er- dialdean areagotu zen, Irlak ezagutu zuen immi- grazio prozesuaren baitan; izan ere, 1641-1654 artean 22.500 irlandarrek penintsularako bidea egin omen zuten<sup>13</sup>.

12 Ikus AYERBE IRIBAR, M.<sup>a</sup> R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1654-1656. Documentos)*. Donostia: GFA-GBB, 2011, II, 2-5, 8, 9, 11, 12, 17, 20-22, 56, 59, 68, 92-96, 113, 125, 144, 152, 171, 173, 175, 185, 202, 227, 228, 235, 238, 241, 274, 278, 344, 434, 494 eta 529 or. Mehatxuari buruz, ibidem, 264 or. (Zestoako 1655eko apirileko Diputazioa).

13 Ikus KAMEN, H.: *Imperio. La forja de España como potencia mundial*. Madril: Aguilar, 2003, bereziki 198 or., STRADLING, R. A.: *The Spanish Monarchy and Irish Mercenaries: The Wild Geese in Spain, 1618-68*. Dublin: Irish Academic Press, 1994, liburuaren datuak aintzat hartuta.

Baina soldaduen egonaldiez gain, iturriek beste prozesu batzuk agerian uzten dituzte. Bataio-agi-riak, adibidez, horien adibide eredarriak dira. Izan ere, 1630-1660 artean aldaketak ikusten dira, bereziki Pasaiako badiako komunitateei dagozkien. Beste hiribilduetan irlandarren presentzia oso eskasa edo kopuru nahiko homogeneoa mantentzen dena, baina badiako datuak benetan nabarmenak dira.

1650eko hamarkadaren hasieran aldaketak sumatzen hasten dira. Aurretik, urtean bat edo bi ume bataiatu ikus ditzakegu, hala nola 1647, 1650 edo 1652 urteetan; badaude, hala ere, gehiago diren momentuak: lau 1649 eta 1654an eta sei 1651 eta 1653an. Aldaketarik nabarmenenak, ordea, ondoren datoz: 1655 eta 1656an 5 eta 9 bataio daude, 1657an hemeretzi iristen dira eta 1660an, oraindik antzeko kopurua dago, bataiatu ziren hamabost umeri kutsu irlandar nabarmena baitaie<sup>14</sup>. Handitze honen arrazoi bat 1656ko apirilko datu batek ematen digu; orduan Irlandako fragatak Pasaiara iritsi direla aipatzen duen dokumentu batek, soldaduekin batera emakumeak iritsi zirela agerian jartzen baitu<sup>15</sup>.

Argi dago, beraz, datuak ez daudela soldaduen presentziarekin zuzenean lotuta, edo ez horrekin bakarrik. Soldaduez gain bestelako jendea ere etorri zen. Ikerkuntza sakonagorik egin ezean, gizarte maila ezberdinak zirela pentsa dezakegu, edo halako bidaiak egiteko aukera (eta eskuartea) zutenak. Zalantzarik ez dago, ordea, horietako batzuk estimazio handiko pertsonak zirela. Lehen ikusi da Bordalabordan eta Kordeldegian apopilo hartutakoak, esparru militarrean bazen ere, soldadu soilak baino maila handiagoan zeudenak zirela. Halaber, noble edo kargu militar garrantzitsuez gain elizgizonak ere agertzen dira, horietako batzuk kapilau militarrik<sup>16</sup>.

Artikulu honen asmoei dagokienez, eliz mundu horren lekuko den dokumentu bitxi bezain polita dugu Errenteriako udal akta liburuen artean. Izan

ere, orrialde horietan zehar Nicholas French gotzaina dugu, Irlandaren konkistak gizarte maila guztietakoei eragin zienaren eredu, hain zuzen ere.

Geure buruari egin behar diogun lehenengo galdera honakoa da: nor zen Nicholas French? Jende gehienarentzat arrotz edo astun gerta daitezkeen lan edo ikerkuntzetara jo gabe, baliabide elektronikoek bere inguruan erantzun bat eman diezagukete. Irlandako gatazka ikertu dutenentzat, berriz, oso pertsonaia ezaguna da, partaidetza nabarmena izan baitzuen 1641. urtean izan zen altxamenduan. Irlandako Konfederazio Katolikoaren bultzatzaileetako bat izan zen, hau da, Ingalaterraren konkista ekiditeko 1642-1649 bitartean antolatu zen Irlandako gobernu katolikoarena. Garai horretan, Irlanda hego-ekialdean dagoen Ferns edo Fearna hiriko gotzain izendatu zuten, baina konkista hasi eta urte gutxiren buruan, 1651n, erbestera jo zuen. Parisen izan zen, eta gorabehera batzuen ondoren, Santiago de Compostelan leku hartu zuen. Ingalaterrako berrezarpen monarkikoa dela medio, Irlandara itzuli zen, baina gauzek berdin jarraitzen zuten, 1665ean Irla utzi eta berriz erbesteratu zen. Ganten hil zen, 1678an<sup>17</sup>.

1650eko hamarkadako harat-honatan artean, ordea, inork ez dio erreparatu French Pasaiara iritsi eta Errenterian urte eta erdiz bizi izanari, Martin Galardi sarjentu nagusiaren etxean apopilo hartuta. Errenteriako udal akta liburuek bere egonaldiaren printza batzuk eskaintzen dizkigute: besteak beste, 1656ko abuztu inguruan iritsi zela, orduan *ha venido a morar en esta villa por hauerle echado de su obispado Cromuel, tirano de Inglaterra* aipatzen baitzen; edota 1658ko otsail inguruan hiribildua utzi zuela, berari buruzko azken aipamenak ordukoak baitira<sup>18</sup>.

Bere egonaldiaren arrastorik garrantzitsuena Ostegun eta Larunbat Santuetako meza ematearen erregistroa da; benetan adierazgarria. Ekitaldi erlijiosoa ez zen nolana hikoia izan, 40 elizgizonen

14 Jorge, Quetin, Conor, Dillon, Keral eta Estafort, besteak beste.

15 "...que al puerto del dicho lugar del Passage [Pasai Donibanez ari da] aportaron de horden de Su Magestad ciertas fragatas de guerra yrlandessas y en ellos [sic] a llegado Elena Rochfort, biuda que anda en las dichas fragatas, de nación yrlandessa..." (AHPG-GPAH, 3/2368, 133 au. folioa). 1670ko deskribapen baterako, ikus AHPG-GPAH, 3/2382, 64 au. folioa.

16 Besteak beste, Asteasutik Errezilera lekualdatu ziren soldaduekin zihoana (Asteasuko Udal Artxiboa, 39-2, f. g.). Eskerrak eman nahi dizkiogu beste behin Amagoia Piári, dokumentuaren kontsulta posible egiteagatik.

17 "A Great Bishop of Ferns". In: *New Zealand Tablet*, XXX (13-XI-1902), 20 or. Eta bereziki, MCHUGH, J.: "Catholic Clerical Responses to the Restoration: The Case of Nicholas French". In: DENNEHY, C. A. (arg.): *Restoration Ireland. Always Settling and Never Settled*. Hampshire: Ashgate, 2008, 99-121 or.

18 IRIXOA CORTÉS, I.; eta ZAPIRAIN KARRIKA, D., aip. lan.

baino gehiagok parte hartu baitzuten. French gizon garrantzitsua zen eta, beraz, ez da harritzekoa eskualdeko erlijiosoak bertan ikustea, Lezo, Oiartzun, Pasai Donibane eta San Pedro, Irun eta Hondarribikoak. Ildo honetatik Donostiako hutsunea oso esanguratsua da. Baina horiez gain, dokumentuak French beste hainbat elizgizonekin batera etorri zela erakusten digu: hor ditugu William, Andrew eta Dennis izenekoak, Edmund Smith eta bereziki, Dublingo bikario nagusi eta French-en lagun min zen Richard Fottrell. Are gehiago, Andrew izeneko Oiartzungo bizitza erlijiosoan txertaturik zegoela ematen du, bertako benefiziaduna baitzen.

Lerro hauen bitartez lozorroan mantendu den irlandarren presentzia aditzera eman nahi izan dugu, garai hartako testuinguruan txertatuta eta ezezaguna zen French-en adibidea plazaratuz; eta noski, etorkizunean norbaitek argi gehiago emango duen esperantzaz. Baina ez genituzke paragrafo hauek itxi nahi A-1-18 akta liburuko 163 at.-165 au. folioek aipatutako ekitaldiaren inguruan jasotakoa erakutsi gabe<sup>19</sup>:

*“En las casas del ayuntamiento de la Noble y Leal villa de Rentería, día miércoles que se cuentan doze del mes de junio de mill y seisçientos y çinquenta y siete años, después de haver sido llamados a son de campana tanida, se juntaron a çelabrar [sic] ayuntamiento los señores el sargento mayor Martín de Galardi y Domingo de Amasa, alcaldes hordinarios, Joan de Chipres y Joseph de Orcolaga, jurados mayores, Joanes de Leopeola, mayor en días, Juan Pérez de Córdoua y Esteuan de Ysassa, regidores, conçejo, justiçia y regimiento de los caualleros hijosdalgo de la dicha villa, y estando así juntos, acordaron lo siguiente:*

*<Celebración de los Santos Oleos>*

*En dicho día digeron sus merçedes que en esta villa hauía residido el ilustrísimo señor don Nicolas Frens, obispo de la çiudad Fernense, en Irlanda, por haver aportado en el Passage al consuelo de sus feligreses, que binieron él y ellos perseguidos de los ereges que ganaron aquella Isla en la tiranía de Cromuel, gobernador de Inglaterra.*

*Que por haverle visto destituydo de su obispado y peregrinando al beneficio de los vienhechores, le hauía ospedado en vna cassa suya el dicho señor alcalde, sargento mayor Martín de Galardi, y que*

*durante la residençia en esta villa se hauía ausentado de Panplona el ilustrísimo señor don Francisco de Alarcón, su obispo, para merçed a llamamiento de Su Magestad, por lo qual la santa iglesia cathedral de la dicha çiudad de Pamplona y en su nombre el ilustre señor don Albaro de Benauides y Baçán, del Consejo de Su Magestad y su oydor en la Real Chançillería de Valladolid y Gobernador del dicho obispado, //*<sup>164</sup>  
<sup>au.</sup> *hauía embiado a esta villa a don Martín de Leoz, maestro de çeremonias del dicho señor obispo de Panplona, pidiendo que en su ausençia bendigese el ylustrísimo señor obispo fernense los santos óleos y crismas d’este obispado. Y por hallarse su ilustrísima ymposibilitado de poder haçer la costa de tantos saçerdotes que habían de concurrir a semejante acto, la villa, tanto por haçer esta caridad quanto por el honor y lustre que le benía en ello, hauía tomado a su quenta la dicha costa.*

*Y en su conformidad, el día Juebes Santo, veinte y nuebe del mes de março de mill y seisçientos y çinquenta y siete, habiendo combocado toda la cle-reçia de la çircunveçindad, çelebró missa pontifical en la yglesia parrochial de Santa María d’esta dicha villa, asistiéndole en ello los siguientes:*

*Por diácono: don Sebastián de Goyçqueta, capellán de honor de Su Magestad y beneficiado d’esta dicha villa.*

*Por subdiácono: don Juan de Sabaña, vicario de la yglesia parrochial de San Pedro del lugar del Passage de la parte de San Sebastián.*

*Por asistentes prinçipales con capas de coro: tres saçerdotes que fueron don Juan Ramos de Yraçaçaua, vicario de la iglesia parrochial d’esta dicha villa, don **Ricardo Fartel**, vicario general y conçiliario de la Santa Iglesia metropolitana de Dublín en Irlanda, y **don Guillermo de** [hutsik], **ambos irlandeses**, que le seguían al dicho obispo.*

*Y además de los çinco sujetos, así bien asistieron rebestidos con casullas los saçerdotes siguientes:*

*Don Juan de Ezpeleta, vicario de la iglesia parrochial de San Juan<sup>20</sup> del Passage de la parte de Fuenterrauía.*

*Don Joseph de Amolaz, beneficiado del valle de Oyarçun.*

*Don Juan Ramos de Alça, beneficiado del mesmo valle. //*<sup>164 at.</sup>

*Don Juan de Vrbieta, beneficiado tanbién del dicho valle.*

19 Irlandarrei buruzko datuak beltzez azpimarratu ditugu, hobeto ikuste aldera.

20 Pedroren orde zuzendua.

Don Joan de Yguereta, beneficiado d'esta villa de Rentería.

Don Miguel de Albiz, beneficiado de la çiudad de Fuenterrauía.

Don Joan Chacón, beneficiado del dicho lugar del Pasage de la parte de Fuenterrauía.

Don Esteuan de Vrtarte, presbítero, veçino de la vnibersidad de Yrún.

Don Nicolás de Yturrarain, beneficiado del lugar de Leço.

Don Miguel de Villauçiossa, beneficiado del Pasage de la parte de Fuenterrauía.

Don Miguel de Barrenechea, presbítero, veçino de la çiudad de Fuenterrauía.

Don **Andrés de** [hutsik], **saçerdote irlandés** que asiste en el dicho valle de Oyarçun al serbiçio de vno de los beneficios de su parrochial.

Y con almáticas los siguientes:

Vn religioso capuchino conbentual en el conbento de San Francisco d'esta villa.

Don **Dionisio de** [hutsik], **religioso irlandés**, capellán de la capellanía real de España, que al presente está en el puerto del Passage.

Don Juan de Ysarbide, presbítero, veçino del Pasage de la parte de la villa de San Sebastián.

Don Antonio de Blaya, beneficiado del lugar de Leço.

Don Miguel de Celayandia, beneficiado d'esta dicha villa.

Don Juan de Traueseras, beneficiado de la çiudad de Fuenterrauía.

Don Juan de Alchacoa, beneficiado de Fuenterrauía. // <sup>165 r.º</sup>

Don Andrés de Lauba, presbítero, veçino del Pasage de la parte de San Sebastián.

Don [hutsik] **saçerdote irlandés** que reside en el lugar de Leço, en la cassa de Borda-andia.

Don Bernardo Esmat, **saçerdote irlandés** residente en el Passage de Fuenterrabía.

Y con la cruz mayor dorada de la parrochial, el padre Fr. [hutsik] de [hutsik], religioso capuchino, residente en el conbento d'esta dicha villa.

Con sobrepellices y asistentes:

Don Bernardo Ochoa de Errarte, vicario de Leço.

Don Antonio de Olaçaua, venefiçiado d'esta villa. El dicho maestre de ceremonias.

Don Guillermo Ysus, secretario de Su Ylustrísima.

Don Miguel de Ysasti, venefiçiado d'esta villa.

Don Domingo de Goyçaran, venefiçiado de Leço.

Don Juan de Marquello, natural de la villa de Sangüesa, saçerdote que asiste al serbiçio de vno de los beneficios de esta parrochial y su organista.

Don Bernardo de Villanueva, natural de San Juan del Pie del Puerto, saçerdote que asiste al serbiçio de vno de los beneficios d'esta parrochial.

Don Sebastián de Olaçiregui, clérigo de ebangelio, natural d'esta villa.

Por músicos en el coro:

Don Joan López, organista de la iglesia parrochial de // <sup>165 v.º</sup> Santa María de la villa de San Sebastián.

Don Joan de Arrasque, beneficiado de Oyarçun.

Don Martín de Vgarte, beneficiado del Pasage de Fuenterrauía.

Don Jorge de Çubiaur, presbítero, natural del Pasage de San Sebastián.

Don Juan de Villanueva, presbítero, natural de San Juan del Pie del Puerto, que reside en el valle de Oyarçun al serbiçio de vno de los beneficios de su parrochial.

Carlos de Yrisarri, organista de Oyarçun.

Con cuyo concurso y asistencia se çecelebró la missa mayor estando puesto sitial al dicho señor obispo y sirviendo el agua de manos y toalla a Su Ilustrísima los dichos señores alcaldes.

Y después de dicha la missa y benedeçido los Santos Óleos en ella, dio la comunión Su Ilustrísima y ençerró el Santísimo Sacramento, acauada la proçesión, en el monumento.

Y el Sáuado Santo siguiente, que se contaron treinta y vno de março, bendijo Su Ilustrísima la pila baptismal y la lumbré y çecelebró así bien missa pontifical, sirviendo así bien en ella la toalla y aguamanos los dichos señores alcaldes.

Y para que conste en todo tiempo, mandaron asentar esta relación los dichos señores del regimiento".